

Donostia, 1993ko otsailaren 26a

Haritschelhar, J., euskaltzainburua; Lekuona, J. M., euskaltzainburuordea; Knörr, E., idazkaria; Arana, J. A., diruzaina; Altuna, P.; Azkarate, M.; Charrington, P.; Davant, J.-L.; Diharce, X.; Irigoyen, A.; Krutwig, F.; Larre, E.; Oyharçabal, B.; Ondarra, P.; Salaburu, P.; San Martin, J.; Sarasola, I.; Satrustegi, J. M.; Lizundia, J. L., idazkariordea; Zearreta, J.J., ekonomi-eragilea.

Akademi-gaietan: Kintana, X.

Donostian, Gipuzkoako Diputazioaren jauregian, 1993ko otsailaren 26an, bildu da Euskaltzaindia, goizeko hamarretan hasita. Aldamenean aipatzen diren lagunak etorri dira. Ezin etorria L. Villasantek adierazi du.

Agiria

Urtarrileko agiria onartu da, zenbait zuzenketarekin.

Barne gaiak

Eragile teknikariaren arazoa izan da lehen puntua. Testu berritua aurkeztu da eta ondoren bozketa egin da, dei publikoa bai ala ez. L. Villasantek euskaltzainburuari eman dio idatziz botu-ordezkaritza. Alde hiru izan dira botoak; aurka hamabi, eta bi zuri. Hortaz, dei mugatuaz hornituko da eragile teknikoaren lantokia.

Zuzendaritzaz landako karguen hautapena egin da gero. Banan-banan bozkatu da eta hala onartu, gehiengoz, era honetara: Iker sailburua, P. Altuna; Jagon sailburua, E. Knörr; Gasteizko ordezkaria, M. Ruiz Urrestarazu; Donostiako ordezkaria, J.M. Lekuona; Baionako ordezkaria, P. Charrington; eta Iruñeko ordezkaria, J.M. Satrustegi.

Espainiako Kultur Ministerioak urteoro deitzen dituen Literatur sarietarako Zuzendaritzak proposaturiko epaimahaikideak onartu dira, hots, iazko berak. Ohar-

turik Ministerioak azken bi urteetako kideak aldatzea agintzen duela, J.M. Lekuona Literatura batzordeburuaren esku utzi da, idazkariordearen laguntzaz, aldaketa horiek gauzatzea.

Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritzak kide bat eskatu dio Euskaltzaindiari, nekazal hiztegia landuko duen taldean aritzeko. Jean-Louis Davant izan da izendatua, eta Kepa Enbeita urgazlea haren ordeko. Gutunean alor horretan orain arte egina dena kontuan hartzeko premia aipatzea erabaki da.

Onomastika batzordearen adierazpena aurkeztu da ondoren, erdaratiko deituren grafiaz. Onartu da.

Euskal Irrati Telebistako zuzendariaren gutuna izan da gero mintzagai. Ahozko erabilera eredugarria eskatzen du. Gai hori Euskaltzaindiaren 75. urteurreneko biltzarrean kontuan hartuko dela erantzungo da.

Akademi-gaiak

Une horretan X. Kintana urgazlea sartu da batzar-gelan. *Nornahi* eta sail berekoen ortografia eztabaidatu da lehenik. Luzaz aritu ondoren, lehen osagaia *n-z*, *t-z* edo *k-z* bukatzen bada, hitz batez idatzi ahalko dira, soinu-aldaketarekin (*nonahi*, *zenbanahi*, *nondinahi*), edo letra guztiekin, marratxo batez berezia (*nonnahi*, *zenbat-nahi*, *nondik-nahi*). *Zenbatgura* eta antzekoen arazoa geroko utzi da.

Nor/nortzuk, *zer/zertzuk*, *zein/zeintzuk* galdegileen ortografiaz hitz egin da ondoren. A. Irigoienek bere txostena azaldu du. X. Kintanak irakurri du orobat berea, aurreko zenbait prozedura eta erabakiren aurka. Azkenean, *Nor da hori/Nor dira horiek* euskara batuko forma hobetsi bakarrak izango direnentz bozkatu da. Bozketa honetan ez dute A. Irigoienek eta F. Krutwigek parterik hartzen. Hona non emaitzak: Bai, 10; ez, 6; zuri, 1.

Eta honekin amaitu da goizeko bilkura.

ARRATSALDEKO BATZARREA

Egun eta toki berean, arratsaldeko laurretan, egin du Euskaltzaindiak bere batzarrea.

Bildu dira: J. Haritschelhar, J.M. Lekuona, E. Knörr, J.A. Arana, P. Altuna, P. Charritton, J.L. Davant, X. Diharce, A. Irigoyen, E. Larre, P. Ondarra, B. Oyharçabal, J. San Martin euskaltzainak; J. Etxaide euskaltzain ohorezkoa; J.A. Arkotxa, M. Atxaga, R. Badiola, J.M. Etxebarria, J. Garmendia, X. Kintana, M.P. Lasarte, J.L. Lizundia, A. Zatarain eta J.J. Zearreta urgazleak.

Eusebio Osa jaunaren heriotzearen albisteaz hasi du bilkura Euskaltzainburuak.

Goizeko bilkuraren berri eman du ondoren Idazkariak labur: eragile teknikoaren hautabidea; sailburu eta ordezkarien izendapena; Espainiako Literatur

sarietarako epaimahaikideak; nekazal hiztegirako ordezkariak, erdaratiko deituren grafiaz adierazpena, eta eskuarteko zenbait gai.

Gerardo Lopez de Guereñu Galarragaz irakurri du ondoren E. Knörr-ek bere txostena, eta Arabako euskaltzain ohorezkoaren lan eskerge goraiatu.

Gero, P. Ondarrak “Goñerrin aurkitutako testuak (VIII)” izeneko txostena irakurri du. Bukatzean, E. Knörr-ek esan du forma interesgarri asko ageri direla testuotan: *gizi, giti, dakie, due*. P. Altunak ohar bat egin du *eskusatu* hitzaz.

Jose Garmendiak irakurri du, azkenik, bere txostena, “Iztuetaren *Guipuzcoa-co Condaira*-ren inguruan”. Liburuaren iturriak ikertu ditu txostengileak, bereziki Iztuetak Zamacolaren *Historia de las naciones bascas* liburutik harturiko materialaz.

Eta besterik gabe bukatu da batzarrea.

Jean Haritschelhar
euskaltzainburua

Endrike Knörr
idazkaria